

GURE LEKUKOTASUNA

Zuen aurrean, jaun andereak, ibiltzen gara askotan...
bozkarioa ezarri nahi denen gogo-bihotzetan!
Baina giroa, ez dago nahi, alaitzeko denboretan...
Oraindik ere Euski Herria ari baita negaretan!
Ez dugu segur gauza handirik Herriari eskaintzeko.
Bakar bakarrik zenbait olerki hemen zuei kantatzeko.
Guk ere zinez, gure moldean, nolabait zerbitza
Guk ere zinez, gure Herria asko maite dugulako,
Eta kantatz, gure moldean, nolabait zerbitzatzeko...
Ba dakigu bai, kantatza beste, nahi duela Herriak...
Baina ez dira denontzat berdin iraultzaren iturririk...
Bakotzik beraz, bere sailean, ezar dituala harriak.
Ekarren lanak, ongi uzartuz, alaitzen dio etseak!
Etsa batean, nori ez du maite, beti kantatzen ari dena?
Baina kantatza, ez da ez aski, egin behar ere lana!
Gauko kantu hau izan dadila, gure lekukotasuna...
Buruko gaiten, irabazteko, Euskadin askatasuna!

D. Landart.

- Hi
Hi: Gau iluneko gudari
Izen gabeko gudari.
Hi: Bihotz handiko gudari
Amodiozko gudari.
Hi: Iri ostiko gudari
Udaberriko gudari.
Hi: Herria.
Herria gatik gudari.
Hi: Lanilea.
Langilea-gatik gudari.
Hi: NEURE ANAIA...

KANPO

Kanpo.
Kanpokoak da
Gu gobernaren ari zeraukan jauna
Azeriaten abilena...
Maltzur.
Ta dena gezur
Herria izorraltzen dakite segur.
Ebatziz goztain eta hekur.
Uzkur
Ta beti beldur.
Halere jakin saltzen etxalde ta lur:
Badakizue bai nora bihur...
Aki
Lan tzarra geld:
Gurea dena oto guretzat utzi
Gure lurrean gu nagusi.

XILEKO LANGILERIA

Ximista baten pare
Eguzki gorriak bat ikusi ondoan.
Xileko langileria
Beritz.
Gau beltzean sartu da.
Langileen kopetat beheititu dira.
Haren begiak zorrotz
Bihotzak gogortu
Eta
Eskuan zautaten xoria airatu.
Alta zenbait denbora ute ukan dute.
Uste ukan dute bai
Eguzki gorriak hori gorriagotuz joanen zela
Ta zuzen den bezala
Klase gabeko gizarte bat, eginen zutela.
BAINA EZ...

Haundi maundi madarikatuz
Ez dute korrelakorik onartu
Eta beren interesak zalindu beharrez
Erabakia segidan hartu.
Iraultzaren gidariak behar zirela sutsitu!
Beren lan tzararen obratzeko
Denak zautaketen eskuko:
Dirua eta harmak, harmak et dirua.
Ipar Amerikaren laguntza.
Ez dut aipatzen Eliza...
Populak aldi, gazi populak
Bere buruaren zaintzeko
Fasziismoari ihardukitzeko
Ez zuen deus kasik
Bere esku hutsak baizik...
Ta esku huts horiek moztu dituzte
Gobernuko giderrez jabetzeko
Ta jabetu ondoan, oraindik
Salbaikeria harrigarriaren egiteko:
Politika gizonak HIL
Sindikalistak HIL
Olerkari ta kantariak HIL
Eta bizi gelditu direnen saria.
Destruu edo presoedegia.
Eguneroko miseria.
Ceroziki.
Xileko langileria doluinez dago
Eta ba daki
Zeru gainean ez duela izarririk ikusiko
Askatasuna ez baitzaio zerutik jautsiko
Baina bai, lur huntan aski gudukatuz
Zurentasunak belu, egun batez, irabaziko
Xileko langileria
Lurrera eroriak
Eta
Euskoakiko langileria
Zutitzen hasiak.
Zein diren elgar iduriak.

D. Landart.

NAGUSIAREN NIGARRAK

Gure Nagusia, gaixo nagusia
Goizetik arrats ta urte guzia
Nigarrez, nigarrez, nigarrez
Nigarrez ari da.
Nigarrez artzeko, nigarrez artzeko.
Arrazoinak, arrazoin handiak
Ba omen dituz...
Ta nagusiaren nigarrek
Langilearen, langilearen
Bihotz "eria" hunkitzen...
Nagusiaren, nagusiaren
Nigarrez artzera ez urteko
Kontsolatu beharko dugu.
Ta nagusiaren kontsolatzeko
Langileek, langileek.
Irabazi berarentzat
Lan gehiago ongi beharko!
Gure nagusia, gaixo nagusia
Goizetik arrats ta urte guzia
Nigarrez, nigarrez, nigarrez
Nigarrez ari da.
Nagusiaren, nagusiaren
Nigarrez artzera ez urteko
Langileak, langileak
Ez du lanari baizik pentsatu!
Lan eta lan, Lan eta lan,
Lan eta lan, lan eta lan,
Lan eta lan eta lan eta lan eta lan...
LANA... LANA... LANA... LANA...
Langileak ez du lanari baizik pentsatu.
Ta greba horiek, greba zikin horiek
Bazterreria utziko!
Gure nagusia, gaixo nagusia
Goizetik arrats ta urte guzia
Nigarrez, nigarrez, nigarrez
Nigarrez ari da.
Nagusiaren, nagusiaren
Nigarrez artzera ez urteko
Langileak, langileak
Beti eta beti, beti eta beti,
Beti eta beti, beti eta beti,
Beti eta beti, beti eta beti
Haren zerbitzuko egon beharko!
Ahalaz, ahalaz,
Bakantzarik ere ez hartuko!

Lan eta lan, Lan eta lan,
Lan eta lan beti lan eta lan,
Lan eta lan beti lan eta lan,
beti lan eta lan beti lan...
BETI... BETI... BETI...

Gure nagusia, gaixo nagusia
Goizetik arrats ta urte guzia
Nigarrez, nigarrez, nigarrez
Nigarrez ari da.

GURE NAGUSIA POBRENO BAT DA NAGUSIETAN POBRENA!

Hamar etxe
Hiru kotxe
Zazpi sehi
Ehun zaldi,
Ta Suisako bankoetan, abiki gorderik
Dollarak, dollarak, dollarak metako...
Hori baizik, ez da, hori bakarrik
Gure nagusiaren, nagusi gaixoaren
Miseria...
MISERIA GORRIA.
Gure nagusia, gaixo nagusia
Goizetik arrats ta urte guzia
Nigarrez, nigarrez, nigarrez
Nigarrez ari da.

D. Landart.



EUSKADI

Euskadi
Hori da hori
Neure aberri zaharra.

Euskadi
Hori da hori
Neure aberri bakarra.

Euskadi da

Euskadi
Hori da hori
Neure aberri errera.

Euskadi
Hori da hori
Izanen beti GUDARI...

AITARIK EZ DUT...

Nigarra begiatan, ahoa zifila
Bozo kasik galdia, hurbil hetsidura.
Kantatu nai dautzuet neure bihurtzina;
Izugarria baita, gertatzen zautana...

Aitarik ez dut
Ama hiltzen ari.
Haurrideak aldir
Bakotzke herari...

Lehenago denboretan haurrideak oro
Aitamekila ginen aterbe bereko.
Bainan batasun hori ez zen luzarako.
Arrotzak baitirra gutaz jabetuko.

Urteak ta urteak "haundien" mendeen...
Anak bizi gara etxe zaituan.
Apsalidokos da bai gure paimena.
Baina ez dugu gaitzen oi itxaropena.

Aita bat ukane dugunean
Aita bat ukane dugunean
Ama bizko da
Haurrideak ere
Herri berriko libertadean
Herri berriko libertadean
MAIL GABEKO GIZARTEAN...

LANTEGIKO HAMAR MANAMENDUAK

Nagusia ditutzu maitatuko
Bai eta
Ahal bezain ongi zarbitzatuko.
Lanaren hastesko eta utzeko
Orduak
Ditutzu beti errespetatuko.
Lanean denborraik ez gaitzeko
Ez zara
Inoiz lagunekin solastatuko.

Nagusia arrazoin duelako
Denetan
Ez zara haren kontra mintzatuko.
Telefona ez duzu hunkituko
Ahalaz
Kanpotik inork ez zaitu deituko.

Ongi irabazten duzulako
Ez duzu
Emendaziorik galdatuko.
Lan presatu baten antzintazeko
Beharrez
Ilgandetan hartzea onartuko.

Nagusia hazten zaituelako
Agiar
Ez diozu ezerrez ebatsiko.

Nagusia baitira beharrezko
Sekulan
Ez duzu haien lana trabatuko.

Ta gausean langileek eskainiko
Pottotta ta ipurti
NAGUSIARENDAKO...

D. Landart.

NORA GOAZ?

Gure toki edo gurtzik ditutze ahalik bider.
Beren gintzen obratzeko denak pako, denak haizu.
Lege arrotz madarikatu, bihurtuez baliatuz.
Gure herria deramate heriotzari buruz!

Mementoan ahal gira, bainan ez da luzarako
Gure itsutasunetik baigira laster jaigiko.
Isas bastera hartu dute bai eta etxe zaharrak,
Atzain borte edo etxolak, artasok utzi lurrak.
Eta orain nahi daukute mendia ere ebatsi,
Nola debru beharko dugu hemendik aintzina bizi?

Gure herrian lantegia dira zinez beharrezko.
Zorizgatze jaun txapeldunek turismoa nahiago.
Turismoaren zenean gure hunkik gaitzeko!
Hala segituz luza gabe ez zaiku deus geldituko...

Atzar hadi! Atzar hadi!
Atzar hadi! Atzar hadi!
Ene Euskaldun haurride, Euskal herriaren alde...

GURE ZORTEA

Euskal Herriko nexka politikak norapeit dira airatu...
Seme sanoak ezkondu gabe, bakar bakarrik gelditu.
Mendi gaineko elur xuru etsaiek dute zikindu...
Hori kuxez Ama Euskadi, nigar auzenez da lotu,
Nigar auzenez da lotu.

Zazpi probintzi, zazpiak anai, bat besteari so zauden.
Baina goiz batez haundi-maundiek muga bat dute ezartzen.
Eta geroztik asko ta asko seme-alabek ahanzi,
Ama bakarra betidanikan ukan dugula Euskadi,
Ukan dugula Euskadi.

Erdar haizeak gogo-bihotzak usu baititu nahasi,
Egia gordetz sakelak betetz eskerrak kargiduneri...
Baina halere Ama Euskadi ez da etutzen batera,
Baitaki semeek, egiazkoek, dutela zin-zinez maite,
Dutela zin-zinez maite.

Abertzalea ikaran dago mintzaira ez nahiz galdu,
Ez daki nola hemendik goiti beharko duen jokatu.
Euskol anima arrotzek dute hitzari kondatu.
Amaren maitetz harmen bidea behar ote dugu hartu,
Behar ote dugu hartu?

Pasionea iragan ordu etorriko da eguna...
Gizon emazteek, haur eta gazteek igurtzozen duguna;
Euskal Herria ez da ez hilen baina Euskadi sortuko.
Gero sekulan nehorik ez deusek ez baitu hiltzen ahaliko.
Ez baitu hiltzen ahaliko.

ERROBI

BENAT AMORENA: Bateria eta kanta

MIXEL HALTY: Behekitarra eta kanta

ANJE DUHALDE: Kitarra eta kanta

MIXEL DUCAU: Kitarra, kanta eta
sinpletizadorea

DANIEL LANDART: Kanten hitzak

J. PHOCAS eta R. SUHAS: Zintan
hartzale

SUPERREGUI: Argazkiak

ANTXON OLARRIAGA: Irudiak eta maketa